

**JEAN ELISSALDE “ZERBITZARI”  
IDAZLEAREN MENDEURRENA**

*Azkaine, 1983-X-29*



## ZERBITZARI-REN OMENALDIA

*Azkainen, Urriaren 30-ean - 1983*

*André Luberriaga  
Azkaineko Auzapeza*

Adixkide maiteak: deneri agur eta ongi etorri Azkaingo herrian. Egun ditugu beraz apailatzen edo muntatzen, Larrun mendia lekuko, 2 besta eder = Eskualtzaleen biltzarraren urteko elgarretaratzea eta Zerbitzari zenaren omenaldia, lehen mende buru-kari.

Bai, segurki Azkaine ohoratua eta lausengatua da zuek guzieri esker. Egun goxo bat pasa dezagun elgarrekin.

Milesker berezi bat mugaz bertzaldetik etorri diren guzieri, etorri diren gure anaiari, zeren odol ber-bera baitugu gure zainetan eta itxaropen ber-bera gure gogo bihotzetan.

AZKAINE, herri gisa ezagutua da bazterretan. Herri pollita omen da... Bainan Eskual kulturari buruz zer da Azkaine? bertuteko herria ote da?

Herri huntan, jendea bethi mintzatu da eskuaraz eta, jainkoari esker, oraino mintzo da. Bainan, denetan bezala, buruz beheitiko bat egin du 30 urte hautan. Hainitz kanpotiar sartu delakotz, bainan ere —zertako ez kofesa gure bekatua den bezala?— Eskual hizkuntzaren amodioa epeldu delakotz gure bihotzetan.

Lehenengo denboretan, idazle edo izkiriatazaila famatuak izan dire Azkainen. Huna zonbeit izen:

— J. B. DUHALDE, Uhaldekoa, jesuita, olerkilari eta predikari aipatua.

— Aita Klement, hura ere deituraz Duhalde, Sabadin baitakoa, kaputxi-no predikari famatua.

— Xurio bi anaiak; Mixel, berteak bertze, *Jesus Christoren Imitacionea* eskuaraz argitaratu duena; 11 aldiz agertua izan baita. Zer arraskasta! Piarres, haren anaia, Teologiako sailean lan ederra egin duena.

— Martin Iribarren, Etxeberrikoa, Eskual hiztegi edo “dictioner” bat egin duena, bertze lan hainitzen artean.

— Exteben eta Damien Lapeyre anaiak eta bertze zonbeit famatu izendatzen ahal niuzke hemen, bainan sobera luzatuko nuke. Bego beraz hortan lehengoa...

Eta orai? gure orrhoitean, Jean Elissalde, Zerbitzari, Eskualzaindikoa (Euskal Akademia). Nere ondotik, nik egiten ahalnuen bainan hainitz hobeki mintzatuko dire hortaz aita Villasante eta Roger Idiart.

Gaurko egunian, badugu, hau ere Eskualzaindian barne dena, gure adixkide Piarres Larzabal, "Pierre Ixelenkoa". Antzerki edo teatro sailean lan berezia egin duena. Gora Piarres eta hainitz urthez jainkoaren laguntzarekin!

Bertze idazle eta predikari ezagutu bat = Roger Idiart, Eskualzaindiko bidean egiten hari baititu urrats ederrak zonbeit urthe hautan.

\* \* \*

Eta bihar? biharkoaz kezu naiz eta kezu gare Azkaingo herri kargu dunak. Bainan, egiten ahal ditugun guziak egiten ditugu guk ere Eskual kulturaren alde. Huna zonbeit ponttu:

\* orai dela 12 urthe, herriko bozak doi doietarik galdu izanikan ere, zonbeit lagunekin indar berezi bat egin ginuen eta egunetik biharrerat ikastola bat sor-arazi nere aita zenaren etxean. Egun, urtero 20 haur badira ikastola hortan.

Eskual dantza eta xistulari talde bat ere sor arazi ginuen, nere kusina Andd e lendakari. Talde hori bataiatu ginuen "Ikasleak", gure haur denborako "Tunantiak" talde tikiaren oroitgarri. Iphar Euskadiko talde hoberenetan da egun "Ikasleak" taldea.

\* Geroztik, herri kargudun gisa ez gira uzkur egon. Kontseiluko biltzetan berdin mintzo gare eskuaraz edo erdaraz, 19-ak eskualdunak garelakotz. Hori ez da ikusi gure herrian, bederen 100 urthe hautan. Bethi baziran erdal-dunak eta heien gatik denak erdaraz mintzo baitziren. Urrats hori urrats zaila izan da, kanpotiarrez hainitz nahasia den herri batean, eta urgullu dugu hori eginik = 19-ak eskualdunak!

Bertzalde, ganden primaderan edc uda berrian, bozkatu dugu 19-ek, herri diru konduetako (edo budgeteko) eguneko bat baztertuko gizuela Eskual kulturaren alde. AZKAINA DA Iphar Euskadiko herri guzietan urrats hori lehenik egin duena.

Ikusten duzue, otxixon aipatu ditutan Eskualdun kartsuek eta, bereziki, guk haurrean eta gaztean ezagutu Zerbitzari eta Piarres Larzabal-ek umeak egin dituztela!

Eguneko bat hori, haurten, Azkainen, 3 milliun eta 800 milla libera da, diru xaharrean. Diru hori nola puskatu dugu? lehenik, herriko 3 talderi, urthe guziz bezala, emanez beren diru partea: pilota, eskual dantza, ikastola. Bainan ere, herriz kanpoko bertze 13 talde edo batasuneri diru laguntza emanez. Huna zoin diren, aurtengo 13-ak: Donibane Lohizuneko Ikastola (lehen maila), Aturri-Nabarrako irratia, Gure Irratia, Eskualtzaleen Biltzarra, Ikas, Aize Garbia, Lauburu, Antzerkilarien Biltzarra, Gau Eskolak, Bertsularien

Lagunak, Institut d'Etudes Basques Ikastegia, Eusko departamenduaren aldeko batasuna eta Eskualzandia.

Ez dut erran nahi Azkaingo herriak, urteko diru konduekin, 13 batasun horieri eman duela dirua sakelen bete; ez. Erran nahi dut egin dugula gure araberako indarra.

Bertze, eskual herriko, herri hainitzek egiten balute indar bera, hoberena litake diru horiek guziak emaita kutxa bakar batean eta zatitzea eta idatzea, denak lekuko, bakotxaren beharraren eta mereximenduaren arabera.

Sail hortan naizelarik nahi ditut 2 dei egin Azkaingo xoko huntarik, behar bada larrun puntarat ganik denek entzuteko gisa:

Ipar Euskadiko Auzaphez edo mera maiteak = denek egiten baduzue, bakotxak bere herrian, Azkainek egiten duena, gaurtik biharrera Eskual kulturaren salbatzeko behar diren diru guziak bilduko dire! Parisek eta Pauek beren saileko eginbidea betez erran gabe doa.

Urtea bururatzean, ez zuek eta zuen herritarrak ez zaizte ohartuko ere 100-eko bat hori baztertu duzuela gure kulturaren alde!

Beraz, zertako uzkur egon? zertako ez egin guk bezala elduden urtean berean? Otoi; orrhoit nere gaurko deiaz.

Adixkide maiteak = luzaxko ari naiz eta barkatu. Orai bururatuko dut Zerbitzari zenari galde bat eginez, fagore bat galdatuz:

Mundu huntan zinelarik, apheza zinen eta otoi-tza maite zinuen. Eskual kultura-ren aldeko gudari bat zinen, pilotaren bidez eta izkuntzaren bidez.

Zure denboran ere baziren:

*GAUDEN GU* erraiten zutenak eta egiten zutenak; ez baita guti! eta

*GOAZEN AINTZINA* erraiten zutenak eta entseatzen zirenak; ez baita sobera!

Denek Eskual nortasuna zerbitzatu duzue, bakotxak bere gisa.

Pilotan ere, aintzinekoak behar du saka edo bote tzarra ateratu eta kintzea egin, bazterrak bilatuz, marrari tiratuz, airetik moztuz. Giblelekoak aldiz, kintzea atxiki, ez galdu.

Bi joko horiek elgarri josiz dire partidak irabazten. Bainan, aintzinekoa eta giblelekoa bakotxa bere alde jokatuz, partida galtzen da.

Zure denboran ere baziren "kixki-kaxkak" *GAUDEN GU* alderdikarien eta *GOAZEN AINTZINA* alderdikarien artean. Baziren, orduan ere, zakarkeriak eta bortizkeriak bainan hizkuntzaz eta izkirionez.

Oraino bortizkeria, aldiz, gorputzeko bortizkeria da eta, maizegi, *ODOL IXURTZEZKO BORTIZKERIA*.

Egizu Jaun Jainkoari otoitz, Zerbitzari maitea, gure lurra maite dutenek eta zerbitzatu nahi dutenek, egin dezatela GAUDEN GU gisa edo GOAZEN AINTZINA gisa, BAINAN ODOL *IXURTZERIK GABE*.

Bihotzetik milesker otoitz hori egiteaz eta ikus arte, egun batez, zeruan ere, hemen bezala, diren Azkaine herrian eta Euskadi aberrian!

**JEAN ELISSALDE “ZERBITZARI”REN  
MENDEURRENA  
1883-1983**

*Azkainen, 1983, Urriak 30*

*Fr. Luis Villasante  
Euskaltzainburua*

**Euskaltzainburuaren hitzak**

Ander Luberriaga jaun auzapeza.

Mixel Itzaina, Euskaltzaleen Biltzarreko jaun lehendakaria.

Euskaltzaindiko jaunak.

Jaun-Andereak:

Eskerrak, jaun auzapeza, gure batasuneko menbro baten ohoratzeraz deitu gaituzulakotz. Guri, zuri baino gehigo dagokigun gauzan, aurrea hartu duzulakotz. Mila esker!

Bai. Euskaltzaindikoa genuen Zerbitzari. Euskaltzaindiko gure bilkuretan, eta Gerezietan, non baitzen erretor, ezagutu nuen. Oroit naiz Iratzeder jaunak lagundurik joan nintzela Gerezietara Zerbitzari ikustera 1957. urteko udan. Aspaldidanik zen gure Akademiako lagun edo kide. 1920an —beraz, Euskaltzaindia sortu eta berehala—, euskaltzain urgazlea izendatu zuten, eta 1931n euskaltzain osoa.

Gaztetik ikusten dugu Zerbitzari euskal lanetan sartua, *Euskalduna* aste-karian eta bestetan idazten. Eta denetik utzi digu: teatro lanak, poesia, prosa. **Euskera** agerkarian euskaltzain oso edo “académicien” gisa sartu zeneko mintzaldia dago, 1931. urteko tomoan. Eta hau da mintzaldiaren gaia: “Euskal-Herriko landareak”. Baita Guillaume Eppherre jaunari Euskaltzaindian sartzean zuzendu zion ihardespenezko mintzaldia ere gure **Euskera**-n dago (1960eko tomoan).

Oker ez banaiz, prosazko lanak dira Zerbitzariren obran parterik baliosena. Aita Dourisboure Indotxinako mixiolariaren istorioak kontatzen dituen liburua, Zerbitzari berak erregalatu zidan Gerezietan (*Bahnar deithu Salbaiak*). Liburu hau frantsesetik itzulia da, baina zein jator! Berehala igartzen da euskararen jitea eta muina barnetik bereganatuak zituela gure Zerbitzarik.

Lapurtar zaharraren zalea zen Zerbitzari. Euskalkien artean, euskal dialektoen artean, alegia, nahasterik egitea ez zuen maite. Gaur bizi balitz, nik ez dakit nola hartuko zuen Euskaltzaindiaren bidea, baina uste dut konprenituko zituela arrazoiak. Mende berriko uholdearen aitzinean euskaldunok ere behar dugu bat egin eta gure indar nimiñoak elkartu, euskara bizirik atera nahi baldin badugu. Behar dugu, alegia, zenbait gauzatarako behintzat, euskara mueta bat, guztiona izango dena, muntatu, dialektoak errespetatuz, bestalde, eta baliatuz.

Baina neri ez dagokit gaur ohoratzen dugun Zerbitzariren bisaia, ideiak eta lanak deskribatzea, neurtzea eta xeheki aipatzea. Bestek egingo dute lan hori gaurko ospaketa honetan.

Labeguérie zenak esan zuen hitza gogoratu nahi dut soilki: Elissalde jaunak ohore egin ziola berak hautatu zuen izen ordeari: *Zerbitzari*. Bai, hori izan zen oroz gain: Zerbitzari isil eta umil bat, euskararen alde langile neka ezina, haurrak euskaldun atxikitzeke sariketak muntatzen zituen, hurrek bidalitako lanak irakurtzen, aztertzen eta saristatzen zituen. Egiazki eta zinez *Zerbitzaria*.

Hitz hauek ez ditut bururatu nahi beste azkaindar euskaltzale handi batzuen izenak aipatu gabe, ezen Azkaine ezin ahantzizkoa dugu euskal literaturan. Gure literatura zaharra kasik hiru herritan kokatua dela esan izan da: Saran, Donibane-Ziburun eta Azkainen. Azkaindarra zen Chourio, Donibane-erretora zena, *Jesu-Christoren Imitacionea* hain euskara ederrean eman zuena. Azkaindarra Martin Hiribarren hiztegitile, poemagile, gramatikalari eta abar izan zena. Azkaindarra Etienne Lapeyre, *Kredo* liburuaren egilea. Hain zuzen, Euskaltzaindiak egina du liburu honen edizio berria. Eta nola ahantziko dut Larzabal, Euskaltzaindiko gure lagunkide maitea?

Arrazoin gotorrek ditu, bada, Azkainek euskarari leial egoteko.

Eskerrak eman nahi dizkiot gaur auzapez jaunari eta herriari xede honen alde ipintzen duen kalipugatik. Azkainek atxiki ditzala beti bere euskaldun sustraiak! Halabiz.



## “ZERBITZARI” JEAN ELISSALDEREN MENDEURRENA

*Azkaine, 1983-X-30*

*Roger Idiart*

Jaun andere agurgarriak:

Zerbitzari, guk, Azkaindarrek, “Elixalde apeza” deitzen ginuen. Berak aldiz, bere burua Zerbitzari deitu zuen, ez bakarrik idazlesinadura baten hartzeko, bainan egiazki zerbitzari izaiteko. Noizpait, urteak eta urteak berantago, Batikanoko bigarren kontzilioak orroit-arazi zaukun krixtau fededun guziek zerbitzari behar ginuela izan... Izpiritu Sainduaren deiari hain ongi eta hain goizik behatzeko, Zerbitzari gure herritarrak Elizako asko kargudunek baino beharri hobek zituzken!

Nere haur denboran “Elixalde apeza” osoki xahartua ez balin bazen, hein bat zohitua ezagutu dut. Ez handi, bainan xotil, begia erne, ezpainak maiz irri pollit batez argituak, boza ezti, doi bat sudurretik mintzo zen. Aste egunetan bere etxekoan ikusterat jiten zelarik, meza gogotik emaiten zuen bere sorlekuan eta mezatik landa, gurekin, apez gaiekin, elizako arku-azpian solas-aldi luze batzu iragaiten zituen.

Gaur egunean Azkaindarrek zer ote diote Jean Elissalde beren herritar zenaz? Nago gaztek zer erran dezaketen, eskolan Charlemagne eta Napoleón inperadore arrotzak aipatuago bait dira herriko semeak baino... Xaharrek aldiz diote apez kartsua zela, euskalzale ximplea, konpreni errexa, pilotari bipila, gizon alegera, diruari ez lotua, herriko jendeari atxikia eta denak, handi ala ttipi, bardin agurtzen zituela.

Egia erran, bere denboran “Elixalde apeza” ez zaukaten denek estimu handitan, bereziki Frantximant edo erdalzalek-Hetarik bat zen “mamuazel” Maria, nesken eskola libroko buruzagi bearnesa-Guk, mutikoek, “fika” deitzen ginuen: mutxurdi lerden, manatari, kalakari, kurios pint’erdi, Euskaldunen trufatzaile eta persegitzaile, hots “kalitate” guziak bazituen, salbu euskararen errespetua... Oraino ere baditazke bertze “fika” mota batzu, alegia deus ere euskaldungoa pikokatzen dutenak... Artetik erraiteko, mila bederatzi ehun ta hiru hogota lauean, Piarres Larzabal Euskalzaindian sartu zelarik, orduan Azkaingo herriko-etxean zen auzapezak euskara pixka bat ulertzen zuen, bainan ez mintzatzen-Geroztik Azkaindarrek ikasi dute euskara dakien alkate edo mera baten hautatzen.

Goazen berritz “Elixalde apezaren” ganat! Lehenik Larresoron, gero Nay, Bearnoko semenarioan eskola jarraikirik, bere lehen meza Azkaingo eliza ederrean kantatu zuen. Jadanik ez sobera indartsu, semenarioko hazkurrak ez bide zuen hanbat azkartu, zeren lanak ukan omen zituen meza ezin bururatuz, hiru aldiz gelditzerainokoa. Pentsatzea da ere barna hunkitua zela, hain gora zaukan apeztasunaren marka errezebiturik.

Uztaritzerat igorri zuten bikario-gazte denboran aitarekin eta anaiarekin arrantzan usatua, han bertze arrantza mota batean hasi zen: gizon arrantzan eta kasik erran nezake pilotari arrantzan. Kapito-Harri, pilota batasuna famatua sortu zuen: orduan ziren joko-garbian Henty, Leon Hiribarren, Altzuyeta uztariztarrak agertu, bai eta esku-huska Haitz, Titi Dominixe eta Adolphe Salaberry. Behin, Elixalde-k Joachim Lalaune buruz-buruko desafiatu zuen. Joachim Lalaune orduko familia gorri-gorrietarik zen. Beltza alde batetik gorria bertzetik, a! zer guduka! Pariatu dirua bakotxak bi libera, gapelu edo bonet baten barnean ezarria zuten, arraboteko paretari kontra. Biak elgarren bete bait ziren, partida gaitza zeramaten. Horra nun kintze baten gainetik alimaleko kalapita pizten duten, kasik joka hasteko heinean. Bet-betan partida utzirik, Joachim Lalaune-k hartzen du gapelua, lau liberak zarpan sartzen eta etxerat joaiten! “Elixalde apezak” ez zion hortaz deus herrarik atxiki. Zonbeitek diote menturaz biak aintzinetik hitz-hartuak zirela plaza bazterren harrotzeko eta bide hortaz herriko gazten biltzeko...

Uztaritzetik bi ateraldi bereziak egin zituen Zerbitzari-k: bat Frantzian, hamalauko gerlan, bertzea Ameriketara, hango Euskaldunen ganik diru laguntza bat eskatu beharrez. Biziki maite zuen gerlako ixtorio hunen kondatzea: Saint-Pierre, bere apez lagunak soldadoeri esplikatu ondoan zer zen la Patrie, delako aberria, kapitainak Euskaldun bati galdegin zion: “Qu'est-ce que la Patrie?” Hunek eskuz irakusten du bere bularra, ustez eta galdegina zitzaion, ez la patrie, bainan bai la poitrine zer zen! Saint-Pierre-k berehala kapirainari: “Hunek Frantsesik ez daki, bainan jestu hortaz erran nahi du, aberria dela bihotzaren erditik maite duen lurra”. Kapitainak orduan: “Biba zu! Ederki esplikatu diozute zer den la Patrie!”.

Zerbitzari-k bigarren piaia luzea Ameriketara egin zuen, Blazy Uztaritzeko erretorarekin eta Aita Donostia musikari famatuarekin, Uztaritzeko Semenari berriaren eraikitzeke sos galdez. Hango Euskaldunek ongi-etorri ederra egin zioten. Hiruak ere frango artixtak bait ziren, diru-ixtorio hortan ez zuten funts handirik egin, bainan jendearen bihotza hunkirik, moltsa polliki bete-ta itzuli ziren.

Baionako diosesan, apez manexek, erran nahi baita Xuberotar ez ziren Euskaldunek, usaian gaztigu bat bezala hartzen zuten Xuberorat joaitea. Uztaritzeko bikario baliosa zer gatik igorria izan ote zen Basabürüko Liginaga hrrixkalat? Pilotaz eta Euskaldungoaz gehiegi arduratzen zelakotz ote? Nork daki? Ongi ezagutzen dutan bertze Azkaindar batek ere, ber-lekutik ber-bidea hartu behar ukan zuen. Apez jaun handi batek erran zion: “Zer? Hi

Xuberorat joaiten? Bainan hori lehen klasako ehortzeta duk!” jaun handi hura laster hil zen. Aldiz, ehortzi omen zuten apez koxkor hura beti bizi!

Dena den, Jean Elissalde Lapurtar manexa Xuberorat igorri zuten eta han, hamar bat urtez, Liginagako erretor egon zen, Atharratzetik hiru kilometretan. Xuberotarrek hartaz orroitzapen ona beiratu dute: “Pheredikiak llabür eta hun emaiten zititzün. Pelotakan izigarri laket züzün Biga bostetan agitü ziozü, hura mezperak emanik, sotana altxatürik, bizikletaz Atharratzeko arrabotila juaiten, hapatakaz, eta jentiak elizalako bidian, mezperetarat abiatürik eta ez orano heltürik! Erran zaharrak diozü aphezak mahaiñian xü-xen plantatzen direla, bena harek elizako zeremoniak ere doi hasten zititzün Behin, katiximako haurrer erran ziezün: “Saintü bat ükhenen düzie, arrapostü huna emaiten badüzie eta kadri bat, zien arrapostia untsa esplikatzen badüzie. Hau da ene galthua: oroek ezkuntzako sakramentia ükheiten ahal dieia? Haur batek: Ez, jauna, zük eztüzü ükheiten ahal-Biba zü! Eta orai erradazü zerentako - O! jauna, zaharregi beitzira...”

Musde Elissalde Liginagan erretor zelarik, Junes Etchegorenek, (orai han mera denaren anaiak) deliberatü zizün aphez egitia. Nurk erranen zian egün batez Mauleko arxipetra edo apheznausi zatekila? Gerla denboran eman zizün bere lehen meza, Liginagako eliza zahar ederrian Musde Elissalde-k segür etzizün meza hoi mankatü nahi! Ordünkoz Lapurdi-Gerezietarat erretor juanik beitzen, zone occupée delako Alemanek zaintü gñetik behar ükhen zizün jin, müga kontrabandan igaranik-Aisa phentsatzen ahal düzü nulako boztariua senditü zian egün hartan!”

Holatsu mintzatu-berri zait Astüeko emazte xahar bat, Musde Elissalde, bere erretor zenaz. Astüe, erdaraz Restone deitzen den herri ñimiño bat, Liginagako herriari lotua. Zerbitzari eta Moulié, Otsobi famatua, aski adixkide bait ziren elgar kitzikatzeke, behin Otsobi-k bere apez-lagunari letra edo gutun bat igorri zion, kausi-bide hunekin:

Monsieur l'Abbé Jean Elissalde.

Curé de Laguinge-Restoue tu es... Reste où tu es: ago haizen tokian!

Bainan Zerbitzari ez zen hain luzaz egon Liginagan-Gerezietarat erretor igorri zuten, mila bederatzi ehun eta hogoita hamabian. Hau egon zen hil arte, hogeita hamar bat urtez. Han “egon” zela erran dut. Norbeitek aldiz, adiarazteko Zerbitzari zer ari zen, “badabila” erran omen zuen, baizik eta arrantzan eta pilota partidetan maiz ibltzen zela-Bainan zoazte Gerezietarat eta han besterik entzunen duzue nor nahiren ganik, bere lehen auzotik eta Germain Lafitte, hango auzapezetik haste-Bai, Zerbitzari arrantzalea eta onddoketaria zen, bainan biltzen zituen onddo eta amorroinak auzo eta adixkideri emaiten zituen. Bai, Zerbitzari pilotazalea zen, bainan pilotaren bidez gazteak biltzen zituen. Menturaz bertze asko apezek baino lehenago harek mundu berri bat ikusten zuen heldu. Elizkizunen tenoreak biziaren arabera plegatzen zituen

eta Ama Birjinaren ohoretan Garraldako kapera ttipia eraiki zuelarik, hango haur eri batez urrikaldurik egin zuen, etxekeeri Aokorri baten ekartzea gatik. Bai, Zerbitzari gizon bizia zen eta bolbora bezain aise sutan jartzen. Behin, Mugika, oraiko pilotari ezagutua, orduko beretarra, bizikletian etorri zen mezaren zerbitzatzera, bainan berantegi: jaun erretora, meza emanik, oinez patarra behiti abiatua zen, Baionako otobuzaren hartzera. Biziki goiz, baitzen eta oraino iluna, Mugika-k ez zuen ikusi. Hura ere patarra behiti badoa firrindan, bere pirripitaren puntan. Ilunpean, uste-gabetarik jaun erretora kaskatzen du eta hantxe-harat igortzen, pareta baten kontra... Apezaren ahotik bereak eta asto beltzarenak entzun zituen, bainan biharamunean, Zerbitzari-k Baionan erosi pilota berri bat present egin zion. Best'orduz, erasia batzu egin ondoan, gisa bereko jestu batez ordaintzen zituen asarrean jali solasak.

Landagaray, Elissalde-n aintzineko erretoraren denboran, Gerezieta-ko nexkatxak, igandetan aparte biltzen ziren, apez-etxe zaharreko sala handi batean eñ, bixtan da, mutiko gazteak begiak harat luzaturik, ixilka han sartzen... Zerbitzarik denak plaza inguruan bildu zituen, neska ta mutiko, batzu pilotan, bertzeak birletan edo kartetan; hola, denen agerian, ez zutela gaizkirik egiten eta zer nahi gisaz, ondoko egunetan ere elgarrekin behar zutela bizi. Damurik orduko apezak ez bait ziren denak hola mintzo! Zerbitzariren zuhurtzia ukan balute, behar bada gaurko egunean mutil zahar donado gutiaginuke gure baserrietan...

Xuberoko erran zahar batek dio: "Txortak egiten ixtila". Zerbitzari-k ez zuen maite, hatsik hartu gabe, idatz-lan luze, pisu baten egitea: xortakaxortaka zarion, gogoaren izerdia. Arrantzan ari zelarik, amorroinen haiduru, gogoeta ederrik egin bide du. Behin, Hazparneko Adorazione egun batez predikatu bait zuen, haren ateraldiek jende guziaz xoratu omen zuten. Alta, hortan ere Hazpandarrak biziki gormantak direla diote... Oraino ere zonbeitek uste balin badute Zerbitzari-k bazueta halako "arin" aire bat, jakin dezatela behin, Azkaingo plazan zer erran zioten Pantxua Ibarburu, Arraioko apezari eta Michel Idiart, nere anaia, Erreberako apezari: "Iragan denbora ez duk itzuliko. Gure geroa nehork ez zahik zer izanen den. Jainkoarentzat aldiz, atzo egun ala bihar, beti gaurko eguna duk. Beraz, harentzat, gu hiruak eta hor iragaiten den haur ttipia, adin bereko gaituk". Ez zait iduritzen hori arinki mintzatzea dela. Zerbitzari hain arina izan balitz, haren hiltzeko egunaren bezperan, Gerezieta-ko apez-etxean afalduko ote zuten Michel Labeguerie eta Telesforo Monzon jaunek? Politikan ez zituzten hiruek ber-ideiak, bainan hiruak Euskalzaleak ziren. Orai hiruak hilak dira, bainan bakotxak bere gisa zerbitzatu duten euskara oraino bizi da. Horra zer naukan gogoan, joan den buruilan Arrangoitzeko ikastolarentzat eskatu daulatelarik pertsu ttipi hau, harrian zizelaz idatzia izan dena:

EUSKARA ERABIL  
EUSKALDUNAK BIL

Zerbitzari hain “arin” izan balitz, ez zituen harek onduko, Gipuzkoako aire batean, gurutzearen bidean kantatzen ditugun pertsu ezinago sarkorrak, hala nola:

“Ximun Zirenekoa hartzen dute lagun  
Gurutzearen hartzen guk ikas dezagun.  
...Orai itzatu dute zainak urraturik.  
Hezurak ateratuz beren ozketarik  
...Jesus ona ni gatik xutik itzatua.  
Damu dut bihotzetik barka bekatua.”

Adixkideak, luzexko izan balin banaiz, barka bekatua...